

26 Jan 1960
Jane

Nekazailagunok

Arratsalde on danoi eta ondo etorriak izan zaitela toki onera.
Eskerrik asko onartu dozuelako egin jatzuen deia.

¿Zer delata orain arte ez da orain peri egun erdian emen batuten gara?
¿Zer dala ta orain arte inork ez dauku egin kasurik eta orain deitzen daukue?
¿Zer erakutsi bear daukue guri uretarrak ez diranak, atzurrik eskuetan ez baillenak,? Ama aldiz bakarrik ikusi ditugu guere burruak, kaletik baserrira ezer erusten ez dugo ikusi, betik gora ez da inor jauten, esango dabe batzuek eta IZAN LEIKEZ NEKAZARIAK EURAK GAUZA ASKO KALETARREI EDO ERRI GAZONEI ESAN BEARREKOAK.

Zuen buruetan edo biotzetan daukazuenzan korapilloak ezin askatu neikez nik berba batzuek esanda. Bñs gura neuke izan dagizuela pazientzi piska bat eta NORK ZER ESATEN DAUZUEN BAÑO ZER ESATEN JAZTEUN GEIAGO dentsau dagizuela.

+++++

Diabruk berak be gauza onak erakutsi daikiguz.
Diabruak egingo ez dabena da gauza onak egiten laguntzia.

Gaiztakeria txarra da, baño gaiztakeria bera baño be txarragoa izan leike ez jakitea. Bien baten gizon jakintsu bateri galdetu eutsen zer zan errukarriagoa, kaltegerriagoa batentzat: gaiztakeria ala ezkaintasuna eta erantzuen eban ezjakintasuna zala. Zergaitik?

Jakiteak beti dauka bentaja bat nai izan ezkerre bidezuzena artu al izatea. Gaiztatasuna enoz erremediatzekua da jakituria badago. Baña ezjakitea beti martxa baten jarraitzea izan legike.

++++

Danok dakizue geruago eta aurrerapen aundiagoak dagozala bastar guztietan. Danok dakizue geruago eta alkartasun aundiakoa gadola gizonen artean. Edo beitzat danok ikusiko duzuen izango da gure inguruan langilleak alkartu egiten dirala ets euren alkartasun bazkunak dituela. Danok ikusiko dozue naz osagille, naiz, abade, naiz salerosle, naiz erarusle, danak bata bestea zaintzen dabela, batak besteari eutis

